

EBAZPEN BATZORDEAREN BILERAREN AKTA

2015eko abenduak 22

Bilbon, 2015eko abenduaren 22ko 16:00ak direnean, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan honako hauek bildu dira: Ebazpen Batzordearen lehendakari Juan Luis Ibarra Robles jn., eta Batzordearen kideak diren Andres Maria Urrutia Badiola jn., Javier Balza Aguilera jn., Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn., Jose Ramon Bengoetxea Caballero jn., Kepa Bilbao Gaubeka jn. eta Maria Carmen Agoues Mendizabal and.. Batzordearen idazkaria den Begoña Basarrate Aguirre and. ere bileran egon da. Honako erabakiak hartu dituzte:

ERABAKIAK

LEHENENGOA.- AZKENEKO BILERATIK BATZORDEAREN EGOITZAN SARRERA IZAN DUTEN IDAZKIEN AZTERKETA

Idazkari and.ak azkeneko bileratik Batzordearen egoitzan sarrera izan duten idazkien berri eman du:

1. 2015eko abenduaren 16an Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiko letraduek aurkeztutako idazkia, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamenaren zenbait artikuluri buruzko eskumen-arazoa planteatuz.

2. 2015eko abenduaren 17an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zerbitzu Juridikoen Letraduak aurkeztutako idazkia, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamenaren zenbait artikuluri buruzko eskumen-arazoa planteatuz.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

3. 2015eko abenduaren 17an Arabako Foru Aldundiko Lege-Aholkularitza Zerbitzuko Letradu buruak aurkeztutako idazkia, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamenaren zenbait artikuluri buruzko eskumen-arazoa planteatuz.

BIGARRENA.- ARABAKO BATZAR NAGUSIEK, GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAK PLANTEATUTAKO ESKUMEN-ARAZOEI BURUZKO ERABAKIA.

Aipatutako erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko Barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamenaren aurrean planteatu dituzten eskumen-arazoei dagokienez, honako hau erabaki da:

1. Planteatutako gatazka-eskumenak izapidetzea onartzea. Beroriek 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 zenbakiekin erregistratu dira, hurrenez hurren.

2. Legitimatutako erakundeei helarazpena egitea, hogeit eguneko epean egoki deritzena alega dezaten planteatutako eskumen-arazoei dagokienez.

3. Ebatzi da Eusko Legebiltzarreko Mahaiari erabaki hauen berri ematea eta ekimena proposatu dutenei helarazpena egitea, hogeit eguneko epean egoki deritzen alegazioak aurkez ditzaten, Ebazpen Batzordearen Legeko 50.2 art.ak xedatutakoarekin bat.

HIRUGARRENA.- TXOSTENAK ESLEITZEA

1. Andres Urrutia Badiola jn. txostengile izendatzea Arabako Batzar Nagusiek planteatu duten 2/2015 eskumen-arazoa aztertzeko, txandaz berari baitagokio.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

2. Maria del Carmen Agoues Mendizabal and. txostengile izendatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu duen 3/2015 eskumen-arazoa aztertzeko, txandaz berari baitagokio.

3. Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn. txostengile izendatzea Arabako Foru Aldundiak planteatu duen 4/2015 eskumen-arazoa aztertzeko, txandaz berari baitagokio.

LAUGARRENA.- ESKUMEN-ARAZOEN METATZE-INTZIDENTEARI HASIERA EMATEA

Erabaki da ofizioz intzidenteari hasiera ematea, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Batzar Nagusiek sustatu dituzten eskumen-arazoak Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako arazoari metatzeari dagokionez. Eta, ondorioz, Ebazpen Batzordea arautzen duen 13/1994 Legearen 31.1 artikularekin bat etorritik, entzunaldiaren izapidea irekitzea prozeduran agertutakoei hamar eguneko epea emanez, Eusko Legebiltzarreko Mahaiari ere proposatzaileen ezaguerako komunikatuko zaiona.

Azpimarratzeko moduko besterik ez dagoenez, bukatutzat ematen da bilera hau, ak direnean, eta bertaratutakoei dei egiten zaie hurrengo saiorako, zeina 2016ko otsailaren 2 an egingo baita, 17:00etan Gipuzkoako Batzar Nagusietako Egoitzan. Akta hau egin da eta Batzordeko lehendakariak eta kideek sinatu dute. Nik, idazkariak, fede ematen dut.